



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO UZTAILAREN 26KO BILERAREN AKTA.

Deialdia: Lehenengoa.
Bilera: ohizkoa.
Eguna: 2019.07.26.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Dabid Iturria Almandoz jn.
Leire Mitxelena Gamio and.
Beñat Mitxelena Damboriena jn.
Imanol Lukanbio Larretxea jn.
Joseba Pikabea Iribarren jn.
Markel Jorajuria Elizondo jn.

Bertaratu ez direnak:

Iñigo Sarrias Zoco jn. (oporretan dago).

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Tafallako uholdeak.
- 3.-Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketa: behin-betiko onespena.
- 4.-Arantzako ordenantza orokorraren aldaketa: behin-betiko onespena.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

Ikusirik 2019ko ekainaren 21ean egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 4. puntuan, Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkari direla eta,

Honela dioen lekuan: Ehiza Batzordea: Dabid Iturria Almandoz jn., Beñat Mitxelena Damboriena jn., Imanol Lukanbio Larretxea jn., Joseba Pikabea Iribarren jn. eta Markel Jorajuria Elizondo jn.

Honela behar du: Ehiza Batzordea: Dabid Iturria Almandoz jn., Beñat Mitxelena Damboriena jn., Imanol Lukanbio Larretxea jn., eta Markel Jorajuria Elizondo jn.

2.-TAFALLAKO UHOLDEAK.

Ikusirik honen inguruan hartutako idatzia:

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarritzko azpiegiturak ere kaltetuak izan zirelarik, baita herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Zoritxarrez, uholde hauek, 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien diru-laguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugari erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posiblea izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Guzti honen aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udal honek uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

2) Zentzu berdinean eta udalerriri horietako zerbitzuetan edo azpiegiturretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko, 500 euroko diru-laguntza bideratzea onartzen du Udalak.

3) Udal honek kaltetuak izan diren herri beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.

4) Herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

3.-ARANTZAKO HIRIGINTZAKO ARAUDI OROKORRAREN ALDAKETA: BEHIN-BETIKO ONESPENA.

Puntu hau mahai gainean utzi da hobeto aztertzeko.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

**4.-ARANTZAKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA:
BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Puntu hau mahai gainean utzi da hobeto aztertzeko.

5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udala: 2019ko 99.tik 114.arte.

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai ordenatik kanpo, aho batez, bere urgentzia berretsi ondoren:

7.-CEDERNA-GARALURREN ORDEZKARIA.

2019ko ekainaren 21ean egindako bileran erabaki zen Cederna-Garalur elkartearen ordezkaria David Iturria Almandoz jauna izendatzea.

Alkateak proposatu du bertze zinegotzi bat izatea erakunde horren ordezkaria.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Beñat Mitxelena Danboriena jauna izendatzea Cederna-garalur elkarteko ordezkaria eta Markel Jorajuria Elizondo jauna honen ordezkoa.

8.-EMBALAJES MARTINEZ S.L. ENPRESAREN ESKAERA.

Arantzako Udalak esleitu zion Embalajes Martinez S.L. enpresari Ametxoko, Pagolleta eta Axtalko alderdietako herriko oihan aprobetxamendua, onartutako baldintza pleguaren arabera.

Orain esleitzailak eskatzen du luzapena eskatzeko pleguan ezarria dagoen %5, %10 edo %20 zigorra anulatzea.

Kontuan hartuz pinadiaren egoera.

Kontuan hartuz bakarrik Embalajes Martinez S.L. empresa aurkeztu dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Aipatutako zigorrak anulatzea eta luzapena eskatzen bada zigorrak ez aplikatzea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
David Iturria Almandoz jn.



